

Energia berdea?



IÑAKI BARCENA HINOJAL
EKOPOL ETA EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Zein da energiaren kolorea? Zergatik energia berde izendatzea? Hiztegiak dio energia dela sistema batek lan egiteko duen ahalmena, eta horrek ez omen du kolorerik. Baina guk jatorrizko iturriaren arabera, kolore bat jartzen diogu energiari. Beltza edo grisa esaten diogu baliabide fosiletatik (ikatz, petrolio, gasa) lortzen denari. Hidrogeno arrosa da uranotik eratortzen dena eta hidrogeno horia nahastutako iturrietatik (fosilak eta berriztagarriak) lortzen duguna. Eta berdea litzateke baliabide berriztagarrietatik datorrena. Ulertzekoa da publikoaren haserrea Europako Bata-sunak (EB) 2021an modu trantsitorioan gasa eta energia nuklearra berdetzat izendatu zituenean. Hau trikimailua!

Paradoxa energetikoa. Frantziak ez dio energia nuklearrari uko egin nahi eta Alemaniak Errusiako gasaren dependentzia handiegia du. EBeko bi buru/motore nagusiek "berdetasun" hori inposatu dute trantsizio energetikoaren bidean arnasa hartzeko. Eta kea saltzeko ere bai! Paradoxa txundigarri horrek Europa bere energia-sistemaren ispilu lotsagarriaren aurrean jartzen

Ez soilik Europako gobernuak, korporazio energetikoak ere presaka ari dira energia berdeen bila negozio energetikoa mantendu ahal izateko

du: klimaren mende alde batetik, eta petro-estatu autoritarioetatik ekarritako erregai fosilen dependentzian, bestetik. EB Errusiaren energia-bezero nagusia da oraindik; EBko gas naturalaren %46 eta petrolioaren %25 inguru Errusiako Federaziotik etorri zen 2021ean. Eta erretolika berdearen gaintik ez dugu ahaztu behar: EBk %25etik %40ra handitu ditu gasen inportazioak azken hamar urteetan.

Energia nuklearraren alorrean Ekialdeko European ugaltzen ari diren proiektuak (Bulgarian eta Hungarian adibidez) eta uranioaren merkatu nuklearra Errusiaren kontrolpean daude. Ukrainaren inbasioaren ondotik zentral nuklearren inguruan bizi izandako tentsioek ez dute berri onik ekartzen; hots, nuklearra ezin da etorkizuneko energia iturria izan.

Orain presaka. Ez soilik Europako gobernuak, korporazio energetikoak ere presaka ari dira energia berdeen bila negozio energetikoa mantendu ahal izateko. Energiaren Nazioarteko Agenciaren ustez, 2025erako petrolioaren erauzketa %20ra jaitsiko da kasurik onenean, eta halakorik ez da ikusi II. Mundu Gerratik hona. Antonio Turielek dioenez, egungo energia trantsizio-ereduaren arazoa ondokoa da: energia bizia, energia berriztagarriak alegia, fosilizatu nahi dela; naturaren erritmoak jarraitzen dituen eta lurralde osoan barreiatuta dagoen energia, merkatu kapitalistaren erritmoak jarraituko dituen energia kontzentratuan bihurtu nahi dela. Eta bide horretan berdetasun bararra dolarrena da. ●



XAPOKETAN

PUZZLEA

Euskal Herriko ekosistemak eta animaliak ezagutzeko 100 piezako puzzlea

Iñaki Sanz eta Eñaut Aiertzaguena

Eskaerak: azoka.argia.eus 943 37 15 45

NEURRIA: 43 x 27 zm

15€





